

Fanfarroi xamar asi giñaden
txerriarekin burrukan
geuren ustetan guk indar asko
berak gutxiago etzeukan
ordu erdibat gutxieneko
odola atera eziñikan
eskerrak gure apaiz jaunari
etzuan gure beldurrikan.

Egiten dio apaiz jaunorrek
ebanjeliua ateratzen
txapela eranzi belaunikatu
San Antonioi erregutzen
komeni bada lagun zaiguzu
deseo deguna egiten
bendiziua ere bota zion
bestela ezgenduan iltzen.

Mundu ontako giza indarrak
ezdu batere balio
apaiz jaun onek errezuakin
odola atera dio
orduko gure zain tiratuak
iraute dute oraindio
animalibat bizkorragorik
mundu ontan ez da jayo.

Gaueko amaikak juak ziraden
• • • iltzen asi giñanian
amabik jota oraindiokan
sujetatu eziñian
ango autsa ta lur arrotsia
terreno txiki batian
zilindro batek ainbat potenzi
bazeukan eriotzian

Automobillan sartuta eraman
lau kilometro aparte
su aundi baten erdian jarri
ille danak erre arte
beztuagatik ondo erreta
urdaiantzat ez da kalte
gure barrenak etziran lasa
funzio ori egiñarte.

Lengo lekura etorri giñan
txerri beltz ori artuta
ur beruakin garbitu ondo
mayan gañian jarrita
autosia ondo egin diogu
tripa zarrak atera-ta
zerura beida jarri genduan
aga batian sartuta.

Sei umè zeuzkan bere suertez
sabelian formatuak
lau ordotx eta bi ardi
bi illabete ta erdikuak
erremediorik ezdago orain
barkatuko du Jainkuak
berak badaki nola diraden
gerrako tranze estuak.

Pisua zeukan korrientia
zazpi arrua eskasak
bi egunian ogei gizonak
txupatu itegu biatzak
odolkirikan ezgenduan egin
txorisuake eskasak
bañan gerrian estutu dira
lasaituta zeuden galtzak.

Jabia nordan txerriarena
esangoizutet segiran
fraile konbentu eder bat dago
Karabantxelko partian
gu orain gauden tokitiokan
ez dago oso apartian
orko txerriak jango dizkiau
oiek gizendu aiñian.

Frailiak dira munduan diran
gizonikan listuenak
lanian ere bizkorrak eta
relijiorako fiñak
gauz oyek danek sinisteitegu
bost sentidu ditegunak
bañan mugarik ez-du ikusten
erdi gosian dagonak.

Topo eginda beidatu txarra
egiten digute frailiak
beren artean pensatzen dute
abek dituk erejiak
giltzarik gabe irikitzeiten
leiuak eta atiak
luzaro emen baldinbagaude
aizelako banketiak.

Fraile maitiak ezbezate esan
gu geradela gaistuak
beonganako gorrotukin
ezditegu egin kaltiak
bi urte ontan gerran gabilta
ezgaude urdaiz asiak
lapurretako eskubidia
berekin dauka gosiak.

Pekatu onen sustrayak ez-du
konfesatutzen lanikan
asolbituta gelditu gera
gure apaiz jauna gandikan
albalinbada arrapatzeko
berriz lengo lekutikan
txorizok asko gustatzen zaizka
ez-du jaten urdaikan.

Aiskide jaunak abek dirade
ogei soldadun azañak
jan da edan ondo egin ezkerro
itzegitendu mingañak
Madriko frenten gerran gabilta
amaren seme bikañak
osasunakin laguntzen digu
zeru lurran errogiñak.

Bertzo berriak amar zentimon
prezio bajua dute
gaztañak jan es su baztarrian
ondo kantatu itzazute
baldin kejarik etortzen bada
gauzau dala mediante
beste onenbeste ateratzeko
konforme dago Bizente.